

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
30/2012	R10/2017	2017-06-21	Arabako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Eragiketen bolumena - eragiketen kokapena zehaztea

**Ebazpena: R 10 / 2017**

**Espedientea: 93/2011**

Bilbon, 2017ko ekainaren 21ean,

Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeak, Gabriel Casado Ollero jauna batzordeburu eta Isaac Merino Jara jauna eta Javier Muguruza Arrese jauna batzordekide dituenak, honako erabaki hau hartzen du:

## **ERABAKIA**

Zerga Administrazioko Estatu Agentziak Arabako Foru Aldundiaren aurrean aurkeztutako gatazkaren inguruan; 1. ERAKUNDEA erakundeak (IFZ:-----) 2005-2008 bitarteko ekitaldietan egindako eragiketen bolumenetik lurralde erkidean eta Arabako lurraldean zer proportzio dagoen zehaztea da haren xedea; gatazka hori Arbitraje Batzordearen aurrean izapidetzen ari da, 93/2011 espediente-zenbakiarekin, Javier Muguruza Arrese jauna txostengile duela.

## **I. AURREKARIAK**

1.- Gatazka hori Zerga Administrazioko Estatu Agentziak aurkeztu zuen, 2011ko abuztuaren 2ko idazkiaren bidez. Hori hurrengo egunean erregistratu zen Batzorde honetan, eta 2015eko uztailaren 16an onartu zen horren izapidetzea.

2.- Gatazka jartzeko idazkian, ZAEAk, funtsean, honako hau adierazi du:

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
30/2012	R10/2017	2017-06-21	Arabako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Eragiketen bolumena - eragiketen kokapena zehaztea

a) 1. ERAKUNDEA sozietateak helbide fiskala Zaragozan du. Haren eragiketa-bolumena 7 milioi euro baino handiagoa izan zen 2004ko eta 2005eko ekitaldietan. Eragiketa-bolumenaren % 100a Arabako lurraldeari dagokiola aitortu zuen 2005-2008 arteko ekitaldietan.

2004 eta 2005eko abenduaren 31n 2. ERAKUNDEA erakundeak zuen haren partaidetzen % 99,97a; helbide fiskal eta soziala Bartzelonako probintzian du horrek.

b) 1. ERAKUNDEA erakundearen helburu soziala «automobilgintza edo antzeko baterako piezak ekoiztea, muntatzea, merkaturatzea, inportatzea eta esportatzea» da. JEZaren 363. epigrafean dago alta emanda: «Automobiletako ekipoak, osagaiak eta ordezeko piezak fabrikatzea». Erakundeak bi lantegi ditu jarduera garatzeko; bat Zaragozako probintzian, 1. UDALERRIAN, eta bestea Gasteizen, Arabako lurraldean. Haren bezero nagusia den 3. ERAKUNDEA erakundearen produkzio-gunearen barruan dago azken hori.

ZAEAREN informazioarekin bat etorritik, Zaragozako lantegian 3. ERAKUNDEA erakundearen X modeloaren atzeko ardatza egiten dute eta, gainera, ondoren 3. ERAKUNDEA ez beste bezero batzuei eraldatu gabe saltzen dieten merkantzia jasotzen dute.

Zaragozan egindako X modeloaren atzeko ardatzaren fabrikazioa eskuineko besoa eta ezkerreko besoa egitean datza, eta ondoren mihiztatu egin behar dituzte horiek. Ardatzen 32 modelo inguru ezberdin daude. Batzuetan mihiztadura osoa Zaragozan egiten dute, eta ardatza amaiturik ateratzen da, eta beste batzuetan osagai gehiago eransten dizkiete Arabako lantegian, eta han amaitzen dute mihiztadura, eta baita, zenbait kasutan, bestelako osagaiak erantsi ere. Baina horrelako prozesuak ez dira eraldatzeko jarduera, Zaragozako lantegitik jasotako produktua azken bezeroarentzat harekin hitzartutako baldintzetara egokituz prestatzeko eragiketak baizik.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
30/2012	R10/2017	2017-06-21	Arabako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Eragiketen bolumena - eragiketen kokapena zehaztea

c) Horiek horrela, Zaragozako lantegian eraldatu gabeko besterendutako produktuen zein amaitutako produktuen entregak egiten dituztela ondorioztatu du ZAEAk, eta horregatik 1. ERAKUNDEA erakundearen eragiketen bolumenaren zati bat lurralde erkidean egiten dela ulertu behar da.

ZAEAk Ekonomia Itunaren 16.A) 1. eta 28.Bat.A).1. artikuluetara jo du bere uzia babesteko, hau da, eraldatu gabeko besterendutako produktuei eta jada mihizatutako ardatzei dagokienez eragiketak lurralde erkidean egin direla, ondasunak toki horretan baitaude eskuratzailerari helarazteko bidaltzen dituztenean.

Horrez gain, Ekonomia Itunaren 15. eta 27. artikuluetara ere jo du aldarrikatzeko 1. ERAKUNDEA erakundeak, 2004ko ekitaldian 7 milioi euroko eragiketa-bolumena gaindituta, eta eragiketak lurralde erkidean eta Arabako lurraldean eginda, zergak ZAEAREN eta AFAREN aurrean aitortu behar zituela bakoitzaren eragiketa-bolumena aintzat hartuta.

d) ZAEAk, 2009ko azaroaren 17an, *Negozioaren zifra erlatiboa egiaztatzeko eskatuz Arabako Foru Aldundiari igorri beharreko txostena* izenburuko txostena egin zuen. Azaldutako aurrekariak adierazi zituen txosten horretan. Zehaztu gabeko datan, espedientean ere jaso gabe, ZAEAk AFARI igorri zion agiri hori.

ZAEAk AFAREN txostena jaso zuen 2011ko apirilaren 27an, eta txosten horretan ondorioztatu zuen 1. ERAKUNDEA erakundeak egindako eragiketa guztiak Araban eginda zeudela ulertu behar zirela eta, ondorioz, zuzen iritzi zien erakundeak AFAREN aurrean aurkeztutako autolikidazioei (2006, 2007 eta 2008ko ekitaldietako BEZagatik zein 2005, 2006, 2007 eta 2008ko ekitaldietako sozietateen gaineko zergagatik).

ZAEAk, 2011ko ekainaren 23ko idazkiaren bidez, AFARI inhibitzeko eskatu zion 1. ERAKUNDEAK BEZA eta sozietateen gaineko zerga, 2005-2008 bitartean, Araban bakarrik ordaintzeari zegokionez, eta proportzio hori zuzentzeko eskatu zuen.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
30/2012	R10/2017	2017-06-21	Arabako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Eragiketen bolumena - eragiketen kokapena zehaztea

Uztailaren 23an, eskaera hartatik erantzunik gabe hilabete igaro ostean, ZAEAk AFAREN irizpidea tazituki berretsiztat jo zuen, eta 2011ko abuztuaren 3an gatazka hau jarri zuen, Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren Autonomia Erkidegoekiko Finantza Koordinaziorako Zuzendaritza Nagusiari jakinarazpena 2011ko uztailaren 28an helarazi ondoren.

ZAEAk Arbitraje Batzorde honi eskatu dio gatazka bere uzia baietsita ebazteko, eta ondorioz, deklaratzeko AFAK 1. ERAKUNDEA erakundeak berari bakarrik aitortutako zergen proportzioa zuzendu behar duela 2005-2008 bitarteko ekitaldietako sozietateen gaineko zergari zein BEZari dagokienez, eta behar diren ehunekoetara egokitu behar dituela, ez baita AFAn bakarrik egin beharreko tributazioa, haren ehuneko jakin bat Estatuari ere badagokiolako.

3.- Arbitraje Batzordeko buruak sinatutako 2015eko irailaren 2ko ofizioaren bidez AFARI jakinarazi zitzaion gatazka aurkeztu izana, eta ofizio horrekin batera, hura aurkezteko idazkia zein horrekin ZAEAk aurkeztutako agiriak ere helarazi zitzaizkion. Aipatutako ofizioa 2015eko urriaren 13an jaso zuen. Jasota dago, halaber, alegazioak aurkezteko epea handitzeko eskaera onartu zela, epearen barruan egin baitzen.

4.- AFAK alegazioak aurkeztu zituen 2015eko abenduaren 1eko idazkiaren bidez (Batzordearen erregistroan hilaren 3an sartu zen). Laburbilduz, honako hau adierazi zuen:

a) ZAEAk 1. ERAKUNDEA erakundearen 2005-2008 bitarteko ekitaldietako eragiketa-bolumena berrikusteko eskatuta, Ikuskapen Zerbitzuak 2011ko apirilaren 15eko txostena egin zuen.

Txosten horrek dio 3. ERAKUNDEA erakundeak Gasteizko instalazioetan egiten dituen X eta Y modeloko furgoneten aurreko eta atzeko ardatzak egitea dela erakundearen jarduera. 3. ERAKUNDEA erakundeari egindako salmentak erakundearen fakturazio osoaren ia % 99 dira.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
30/2012	R10/2017	2017-06-21	Arabako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Eragiketen bolumena - eragiketen kokapena zehaztea

Erakundeak Zaragozan duen fabrika 1. HORNITZAILEA hornitzailearen instalazioen barruan dago; 1000 metro koadro baino gutxiago ditu horrek, eta horietatik 200 bakarrik dagozkie muntatzeko instalazioei.

Arabako instalazioak, 3. ERAKUNDEA erakundearen Hornitzaileen Parkearen barruan, 3.300 metro koadro ditu, eta horietatik 2.840 produkzio-arlora daude bideratuta. Erakundea JEZen alta emanda dago 2002tik, epigrafe honetan, zehazki: 363000 «ibilgailu automobiletarako ekipoa, osagaiak, osagarriak eta ordezeko piezak fabrikatzea».

b) Zaragozako instalazioan X modeloaren atzeko ardatzaren ezkerreko eta eskuineko azpimultzoak egiten dituzte; Arabako instalazioetara bidaltzen dituzte horiek, eta atzeko ardatza osatzen duten gainerako elementuak gehitzen dituzte han, eta baita ardatzaren trakzio-funtziorako behar diren bestelako piezak ere. Gasteizen, gainera, aurreko ardatza osorik ere egiten dute.

Atzeko ardatzaren ekoizpen-prozesua 1. HORNITZAILEARI eskuratutako esekidura-besoan gainean hasten da, ekoizpen-prozesura gehitzeko behar denean. 1. ERAKUNDEA erakundearen jabetza da ardatzerdira, gainerako osagaiekin batera (freno-diskoa eta 1. HORNITZAILEAK egindako hainbat osagai, 2. HORNITZAILEARI eskuratutako balazta-pintza eta 3. HORNITZAILEAK hornitutako esku-frenoaren kablea), eransten amaitu eta berehala. Ezkerreko eta eskuineko besoen azpimultzoak ekoizten amaitutakoan, karioletan binaka jartzen dira, albo bakoitzean bat, Gasteizera bidaltzeko.

Eskuineko eta ezkerreko besoen ardatzerdiak ezin dira furgonetetan zuzenean muntatu, eta, aldez aurretik, bi azpimultzoak batu behar dira atzeko ardatza beste osagai batzuk erantsiz eratzeko (horien artean diferentziala eta palierrak batez ere). Diferentziala ezinbestekoa da motorraren indar higiarazlea gurpilei palierraren bitartez helarazteko. Ondorioz, diferentziala eta palierrak gehitu gabe, eskuineko eta ezkerreko besoen azpimultzoek ez dute balioa funtzioa betetzeko.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
30/2012	R10/2017	2017-06-21	Arabako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Eragiketen bolumena - eragiketen kokapena zehaztea

Diferentziala 3. ERAKUNDEAK hornitzen dio 1. ERAKUNDEARI Gasteizko fabrikan.

Ekoizpen-prozesu hori aintzat hartuta, Zaragozako instalazioan atzeko ardatzak 3. ERAKUNDEARI hornitzeko ekoizpen-prozesuaren hasierako faseak edo hura prestatzekoak egiten dituzte; hori horrela, 1. ERAKUNDEA erakundeak aurretiko lanak 1. HORNITZAILEAK hornitutako esekidura-besoan gainean egiten ditu Gasteizko fabrikara igorri aurretik, eta han ekoizpen-prozesua amaitzen dute diferentziala eta palierrak gehituz. Era horretan, horrela lortutako atzeko ardatza zein Gasteizen osorik fabrikatzen duten aurreko ardatza bezeroa duen 3. ERAKUNDEAREN esku jartzen dituzte.

c) Zaragozako lantegian ez dute lortzen bezeroaren esku jar daitekeen amaitutako produkturik; garraioa hasteko tokia ez da kasu honetan aplikatu behar eragiketak Zaragozan kokatzeko konexio-puntu modura, Itunaren 16.A).1. eta 28.A).1. artikuluek eskatzen baitute garraioa eskuratzailearen esku jartzearekin lotuta egon dadin, eta eskuartean dugun honetan, berriz, atzeko ardatzaren eskuineko eta ezkerreko azpimultzoak Zaragozatik Gasteizera garraiatzeak enpresa bereko bi lantokiren arteko lekualdaketa baino ez du xedetzat, eta azpimultzoen jabetza ez da eskualdatzen garraioa Gasteizen amaitzen denean, 1. ERAKUNDEA erakundearen jabetza baitira oraindik.

e) Alegazioak amaitzeko, AFAk Arbitraje Batzorde honi eskatu dio ondoriozta dezan ez dagoela egiaztatuta 1. ERAKUNDEA erakundeak Ekonomia Itunaren ondorioetarako lurralde erkidean eragiketak egiten dituenik; izan ere, bai «esku jartzeko» konexio orokorreko puntua bai «eraldatzeko azken prozesua»ren konexio-puntu espezifikoa aintzat hartuta, biek ala biek entrega horiek Araban kokatzera garamatzate, 3. ERAKUNDEA erakundearen hornitzaile-parkearen instalazioan gertatzen baita esku jartzea zein eraldatzeko azken prozesua.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
30/2012	R10/2017	2017-06-21	Arabako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Eragiketen bolumena - eragiketen kokapena zehaztea

5.- Espedientea amaituta, ZAEari, AFari eta 1. ERAKUNDEA erakundeari jakinarazi zitzaien. Ez ZAEak ez erakundeak ez dute aurkeztu azken alegaziorik. AFAk baino ez du horrelakorik aurkeztu, 2016ko maiatzaren 12ko idazkiaren bidez (Batzorde honetan hurrengo 18an sartuta); hasierako alegazioak berretsi ditu horretan, eta datu gehiago eman ditu 1. ERAKUNDEAK Araban dituen instalazioak Zaragozakoak baino neurri eta garrantzi handiagokoak direla nabarmentzeko.

Gizarte Segurantzako kotizazioko kontuaren datuen arabera, Zaragozako instalazioetako batez besteko langile kopurua honako hau da: 5,24 langile 2003an, 14,14 2004an, 12,65 2005ean, 11,79 2006an, 10,15 2007an eta 11,80 2008an. Ekitaldi horietan beraietan, Arabako batez besteko langile kopurua hau zen, hurrenez hurren: 25,14, 61,28, 67,04, 65,32, 65,58 eta 64,63 langile.

Erakundearen kudeatzailetza-funtzioak 2005-2008 aldian Gizarte Segurantzako kotizazioa Araban zuen langile baten esku zeuden. Gasteizko lantokian ere badaude arlo hauetako arduradunak: giza baliabideak, kalitatea, ingeniaritza, mantentze-lanak, logistika, fakturazioa, erosketa osagarriak eta informatika.

## II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Gatazka honetan auzia da zehaztea 1. ERAKUNDEA erakundeak eragiketen zati bat lurralde erkidean egiten duen edo ez.

Kontu hori garrantzitsua da; ez da auzitan jartzen, izan ere, erakundearen eragiketak 2004ko ekitalditik aurrera guztira 7 milioi eurokoak izan zirela. Horregatik, maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak onetsitako Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Ekonomia Itunaren 15. eta 27. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz, eragiketak Araban zein lurralde erkidean eginez gero, 2005eko eta hurrengo ekitaldietan, zergak Araban bakarrik, egin

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
30/2012	R10/2017	2017-06-21	Arabako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Eragiketen bolumena - eragiketen kokapena zehaztea

zuen bezala, ordaindu ordez, sozietateen gaineko zerga eta BEZa ZAEAREN zein AFAREN aurrean ordaindu behar zituen, lurralde bakoitzean egindako eragiketa-bolumenaren arabera.

2.- Gatazka ebazteko Ekonomia Itunaren 16. eta 28. artikulua aplikatu behar dira. Zergapekoen eragiketak non egin diren zehazten dute horiek sozietateen gaineko zergari eta BEZari dagokienez, hurrenez hurren.

16. artikulua, sozietateen gaineko zergarekin lotuta, honako hau ezartzen du:

«16. artikulua. Eragiketen lekua.

Honako eragiketa hauek Euskadin egindakotzat hartuko dira:

A) Ondasun-emateak:

1. Ondasun higigarri gorpuzdunak ematea, Euskadiko lurraldetik bertatik eskuratzaillearen esku jartzen direnean. Ondasunak eskuratzaillearen esku jartzeko garraiatu egin behar badira, igorpena edo garraiaketa hasten denean ondasunak non dauden, ematea hantxe egin dela ulertuko da. Arau horrek honako salbuespenak izango ditu:

a) Ondasun horiek eraldatuta baldin badaude eta ondasunak eman behar dituenak berak eraldatu baditu, ondasun horiek Euskadiko lurraldean egindakotzat hartuko dira azken eraldatze-prozesua Euskadin egin bada. (.. )».

Eta 28. artikulua, BEZarekin lotuta, honako hau ezartzen du:

«28. artikulua. Eragiketen lekua.

Bat. Ekonomia Itun honen ondorioetarako, honako arau hauek betetzen dituztenak hartuko dira, zergari lotuta dauden operazioen artetik, Euskadiko lurralde historikoetan egindakotzat:

A) Ondasun-emateak:

1. Ondasun higigarri gorpuzdunak ematea, Euskadiko lurraldetik bertatik eskuratzaillearen esku jartzen direnean. Ondasunak eskuratzaillearen esku jartzeko garraiatu egin behar badira, igorpena edo garraiaketa hasten denean



<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
30/2012	R10/2017	2017-06-21	Arabako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Eragiketen bolumena - eragiketen kokapena zehaztea

ondasunak non dauden, ematea hantxe egin dela ulertuko da. Arau horrek honako salbuespenak izango ditu:

a) Ondasun horiek eraldatuta baldin badaude eta ondasunak eman behar dituenak berak eraldatu baditu, ondasun horiek Euskadiko lurraldean egindakotzat hartuko dira azken eraldatze-prozesua Euskadin egin bada. (...).

3.- Gatazkaren mamian, ZAEAk eta AFAk elkarren tesi kontrajarriak dituzte 3. ERAKUNDEA erakundearen X modeloaren atzeko ardatzaren azpimultzoak manipulatzeko eragiketen irismen eta esanahiarekin lotuta; 1. ERAKUNDEA erakundeak Arabako instalazioetan egiten ditu eragiketa horiek.

ZAEAk «egokitze edo moldatze» hutsa dela esaten du, eta AFAk, aldiz, egiazko «eraldaketa» dela.

Nabarmentzekoa da AFAk muntatzeko prozesuaren deskribapen osoa egin duela alegazioetan eta horiekin batera aurkeztutako txostenean, Zaragozan egindako ezkerreko eta eskuineko azpimultzoei gehitzen zaizkien osagaien funtzioari buruzko xehetasun ugari emanda, bai eta aipatutako azpimultzo horiek muntatzeko katean ibilgailuetara erantsi ahal izateko osagai bihurtzeko prozesuaren sekuentzia eta faseei dagokienez ere. Horien bitartez, Arabako instalazioan egindako lanak produktuaren egiazko eraldaketa direla justifikatzeko. Oso bestelakoa da, ordea, ZAEAk emandako azalpenaren sinplifikazio erlatiboa.

Izan ere, Arabako instalazioan egindako mihiztatzeko funtzioak produktuaren egokitze edo moldatze hutsak direla baino ez du adierazi ZAEAk, eta ez ditu zalantzan jarri AFAREN txostenean azaldutako produkzio-prozesuaren zehaztasunak, txosten hori gatazka planteatzeko unean eduki duen eta aurkezteko idazkiari hura erantsi ere egin dion arren.

Espedientea jakinarazi zitzaionean alegaziorik aurkeztu ez zuenez, amaitutzat jo ondoren, ZAEAk ez du prozesuko izapidea ere erabili AFAk alegazio-idazkian adierazitako tesiaren oinarriari kontra egitearren.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
30/2012	R10/2017	2017-06-21	Arabako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Eragiketen bolumena - eragiketen kokapena zehaztea

Nolanahi ere, muntatzeko prozesuaren fase bakoitzaren garrantziari buruzko azterketa alde batera utzita (hura «eraldaketa» edo «egokitze» hutsa dela jotzeko), espedientean datu bat dago –AFAk baino ez du jakinarazi hasierako zein amaierako alegazioetan, ZAEAk planteatzeko idazkian isildu baitu (ez du amaierako alegaziorik egin)– Batzorde honen iritziz gatazka ebazteko argigarria dena.

Erakundeak Zaragozatik bidaltzen dituen elementuen izaera edozein dela ere –dela amaitutako produktua dela ondorengo eraldaketa behar duen produktua–, kontua da Araban horiek jasotzen dituen ez dela 3. ERAKUNDEA bezeroa, igorlearen beraren establezimendu bat baizik. Hau da, Zaragozan egiten dituzten eta handik igortzen dituzten elementuak Araban jasotzen dituen 1. ERAKUNDEA sozietatearen beraren establezimendu bat da.

Hots, 1. ERAKUNDEA erakundeak Zaragozako instalazioetatik azpimultzoak, mihizatuta edo ez, bidaltzen ditu, hain zuzen Arabako bere instalazioetara bertara; eta horiek ez dira inola ere garrantzirik gabeko instalazioak, ez horixe. 3. ERAKUNDEA bezeroaren beraren instalazioen barruan egon arren, Hornitzaileen Parkea deitutakoaren barruan daude; 3.300 metro koadroko instalazioa da eta, batez beste, Zaragozako fabrian baino bost aldiz langile gehiago aritzen dira han.

Arabako instalazio horretan jasota, azpimultzoak, mihizatuta edo ez, oraindik ere 1. ERAKUNDEA erakundearen jabetza dira oraindik 3. ERAKUNDEA bezeroari eman arte, eta hori, edozelan ere, Arabako instalazioetatik egiten da.

Horiek ahokatuta daudenean eta 3. ERAKUNDEA erakundeak berak 1. ERAKUNDEA erakundeari Gasteizen emandako gainerako osagaiak erakunde horrek zuzenean enplegatutako langileek gehitu ondoren baino ez dizkiote bezeroari ematen. Une horretan jo daiteke amaitutzat atzeko ardatzaren produkzio-prozesua eta 3. ERAKUNDEA erakundeari ematen zaio muntatzeko katean gehitu dezan. Ordura arte ezin da esan 1. ERAKUNDEA erakundeak produktua 3. ERAKUNDEA erakundeari eman dionik.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
30/2012	R10/2017	2017-06-21	Arabako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Eragiketen bolumena - eragiketen kokapena zehaztea

Ezin da ondorioztatu Zaragozan egindako azpimultzoak bezeroaren esku jartzea garraioaren espedizioa hastean dauden tokian gertatzen denik, arau hori salgaia Zaragozako instalazioetatik zuzenean bezeroari igorritz gero baino ez baitzen aplikatu beharko, eta hori ez da gertatzen.

Hori horrela, «eraldaketa»tzat jotzen den prozesua Araban egingo ez balute ere, Itunaren 16. zein 28. artikuluetan ezarritako ondasun-ematearen eragiketak kokatzeko arau orokorra aplikatuz (arau horren arabera eragiketa EAEn egin dela joko da euskal lurraldetik jartzen bada eskuratzaillearen esku), 1. ERAKUNDEA erakundeak 3. ERAKUNDEA erakundeari salgaiak ematea Araban izan dela ulertu beharra dago.

4.- Argitzeke dago oraindik 3. ERAKUNDEA erakundeak egindakoak ez diren 1. ERAKUNDEA erakundearen ondasunak entregatzeko beste eragiketa batzuk lurralde erkidean egin direla uler daitekeen.

ZAEAk planteatzeko idazkian adierazi du 1. ERAKUNDEA erakundeak Zaragozako instalazioetan egiten dituela eraldatu gabe besterendutako produktuak emateko eragiketak. AFAk, berriz, alegazioetan onartu du erakundeak 3. ERAKUNDEA erakundeari egindako entregak eragiketa guztien % 99 direla. Onartu ahalko litzateke, hortaz, baita AFAk kontra egin gabe ere, 1. ERAKUNDEA erakundearen eragiketa-bolumenaren % 1 Zaragozako instalazioetatik egindako ondasun-emateei legozkiekeela, betiere eraldatu gabeko produktuak bezeroaren esku instalazio haietatik jarriko balituzte eta lurralde erkidean egindako eragiketatzat hartuko balira.

ZAEAk, ordea, AFAk esan duenez, ez du adierazitakoa frogatzen duen datu edo zantzurik. Ez gatazka jartzeko idazkian, ezta horrekin batera aurkeztutako txostenean ere, ez dira egiaztatu ez bezeroak, ez eta Zaragozako instalazioetatik bezero horiei ustez igorritako salgaiak ere. Hori horrela, ez dugu oinarririk modu praktikoa batez, eta adierazpen teoriko hutsa alde batera utzita, Arbitraje Batzorde honek auziari buruzko adierazpena ematera eraman dezakeenik.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
30/2012	R10/2017	2017-06-21	Arabako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Eragiketen bolumena - eragiketen kokapena zehaztea

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

### **ERABAKITZEN DU**

- 1.- Ebaztea ez dela egiaztatu 1. ERAKUNDEA erakundeak 2005-2008 bitarteko ekitaldietan egindako eragiketen bolumenaren zati bat araubide erkideko lurraldean egindako eragiketei dagokienik.
- 2.- Jarduerak amaitzea eta artxibatzea.
- 3.- Zerga Administrazioko Estatu Agentziari, Arabako Foru Aldundiari eta 1. ERAKUNDEARI jakinaraztea erabaki hau.